

## BIDERATZAILEAK

**Pepa Martelesek** Harreman Publikoak, Marketing, Komunikazioa eta Kultur Kudeaketa ikasketak egin ditu, eta 20 urte luze darama lanean arte eszenikoen esparruan. 10 urtez, Aragoiko Zentro Dramatikoko Banaketa eta Publiko Berriak Departamentuko koordinatzailea izan zen, eta, gaur egun, Community Manager Cultural rola betetzen du zenbait ekitalditan.

**Iva Horvat** unibertsitate-irakasle izateaz gain, dantza- eta antzerki-ikuskizunetako zuzendari, koreografo eta dantzaria da. Berak sortu zuen Agente129, Bartzelonako arte eszenikoak kudeatzeko eta banatzeko bulegoa, eta lau urtez sektoreko artista askorekin lan egin zuen, haien proiektu eszenikoak nazioartekotzeko estrategiak diseinatzen eta nazioarteko harremanak erraztu eta lotzen. Ondoren, Elise Garrigarekin batera, banatze-enpresa berri bat sortu du, ART RPUBLIC, arte eszenikoak banatzeko estrategietan espezializatua. Bestalde, irakasle jardun du eta ikastaroak eman Europa, Asia eta Amerikako hainbat lurraldetan.